

Jainkoari buruz idazleek duten ikuspegia jaso du Joxe Arregik

‘Jainkoaz galdezka’ liburuak 40 euskal egilek bost galderari emandako erantzunak biltzen ditu

NAGORE VEGA
Donostia

Jainkoaz dituzten ikuspegiak, irizkiak eta usteak barrutik atera dituzte 40 euskal idazleek: Koldo Izagirrek, Uxue Alberdik, Joxe Azurmendik, Tere Irastorza, Xabier Letek, Itxaro Bordak, JosAnton Artzek eta Ana Urkizak, besteren artean. Joxe Arregik (Azpeitia,

1952) saiakera liburu batean bildu ditu perspektiba guzti horiek: *Jainkoaz galdezka* (Alberdania). Batzuk luzeago, besteek motzago, batzuek fededun, besteek federik gabe, besteek bi mutur horiek artean, bost galdera erantzun dituzte idazleek, eta 251 orrialde bete.

Ez da teologoek idatzitako liburua, eta jasotako erantzunak oso interesgarriak direla baieztatu du Arregik: «Mugarik ez diet jarri nik, tentazioa izan nuen idazleen esanetaz iruzkintxo idazteko, baina horrela erantzunek indar gehiago dute». Irakurleari ezinezkoa egingo zaio idazle bakarrarekin guztiz identifikatzea.

Mendebaldeko kultura eta gizartean erlijio erakundeek krisi sakona bizi dute egun Arregiren ustez, eta gertatzen ari denaren lekuko bereziak dira idazleak. Baieztapeen tradizionalak, eta kritika topikoak alde batera utzita, denetarikoa ikuspuntuak jasotzen zituen saiakera osatu du.

«Mendeak eta milurtekoak daramatza gizadiak Jainkoari otoizka eta biraoka, Jainkoa dela eta ez dela gogoetan eta eztabaidan, Jainkoaren izenean bizitzen eta hiltzen», dio idazleak. Mendeetako sinismena krisian egoteak eman zio liburua egiteko ideia. Hasieran, Deustuko Unibertsitatean inkesta bat egiten hasi zen ikasleekin. Erantzunak *Hemen* aldizkarian argitaratzea zen helburua. Baina Alberdania argitaletxeari eman zion proiektuaren berri, eta liburu batean bilduta kaleratzea adostu zuten. Ez dute jaso duten idazle guztiek inkesta erantzun, batzuek ezin zuten, besteek ez dute nahi izan. Dena den, emaitzarekin pozik daude Arregi eta argitaletxea.

IDAZLE, ZUZENDARI ETA IRAKASLE. Ez da Joxe Arregik Jainkoa gai hartuta idazten duen lehen lana. Aurtun kaleratu du *Jainkorik bai ala ez?* (Elkar) liburua, Edorta Jimenez idazlearekin batera. Beste hainbat liburu ere idatzi ditu: *Hans Urs von Balthasar: dos propuestas de dialo-*



Joxe Arregi, *Jainkoaz galdezka* liburuaren eskutan duela, atzo. J. C. RUIZ / ARCAZKI PRESS

go con las religiones (1997), *Nazareteko Jesus. Zer gizaki? Zer Jainko?* (2000) eta *Oinatzak bidean. Ertijioen historia* (2004).

Arregi Arantzazun (Gipuzkoa)

bizi da. Parisen ikasi zuen, teologian doktoretza egin, eta egun, Deustuko Unibertsitatean irakasten du. *Hemen* aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria ere bada.

■ BOST GALDERA, BOST ERANTZUN

UNAI ELORRIAGA:

■ «Jainkoa»: zer iradokitzen dizu hitz honek?

Gauza asko iradokitzen dizkit «Jainko» hitzak. Izan ere, umetik eduki dugu Jainkoa ondoan. Esan daiteke bizitza osoan lagundugula. Batzuetan lagundu, beste batzuetan trabak jarri, beharbada. Baina baliteke traba horien arrazoiak konplexuagoa izatea: beharbada ez dugu Jainkoa ondo ulertu. Hau da. Jainkoa eta erlijioa txarto ulertu eta geuk jarri dizkiogu trabak geure buruari.

Zelako adina, halako sentipena izaten dut nik Jainkoari buruz. Umetan gauza handia zen, usain onekoa. Gaztetan egoera bat zen, munduan egoteko modu bat, lasai egoteko modu bat. Orain ez daukat argiegi. Orain, beharbada, aukera bat da. Hau da, existitzen dena alde batetik (aukera moduan) eta existitzen ez dena (aukera hori baztertzaren denean, edo kontuan hartzen ez denean).

ITXARO BORDA

■ Zein Jainkorengan ez duzu sinesten?

Ez dut sinesten farisauen jainkoa-

rengan. Ez dut sinesten gaztigitzen duen jainkoarengan. Ez dut sinesten zapaltzen duen jainkoarengan. Ez dut sinesten jendea bere gustuen eta bere xedearen arabera bizitzera uzten ez duen jainkoarengan. Ez dut sinesten ahalkeak haurretan sakatzaren jainkoarengan. Ez dut sinesten integritatearen jainkoarengan. Ez dut sinesten gertara deitzen duen jainkoarengan. Ez dut sinesten jujatzen eta anatemak botatzen dituen jainkoarengan.

KOLDO IZAGIRRE

■ Zein Jainkorengan sinesten duzu, sinesten baduzu? Zer izen emango zenuke?

Interesgarria da gure hizkuntzan sinesteak ematen dituen lanak: «Jainkorengan» esaten baldin badugu, haren baitan gaudela adierazten dugu alde aurretik. Oker ez banago, mezetan «sinesten du Jainko bakarra» esaten da edo esaten zen, antzeko zerbait. Baina absurdua da, sinetsi egin litekeena inoren esana baita: «Jainkoaren hitza» izango litzateke sinestekoa

edo ez sinestekoa. Alegia, gezurra- ren posibilitatea zabaldu behar da «sinetsi» aipatzen dugularik.

ARANTXA URRETABIZKAIA

■ Non eta nola ageri da, ageri bada?

Horretan sinesten duen bakoitzak nahi duena: batentzat, jainkoa barkazioa da, beste batentzat bengantza, hurrengoarentzat ulertzen ez denaren ordaina, bestearentzat...

ANA URKIZA

■ Zer eta nola egiten du mundu honetan, ezer egiten badu?

Gure bitartez ageri zaigu eta gure bitartez lan egiten du. Gu haren luzapen gara. Batzuk, kontzientzia handiagoz beste batzuk baino. Batzuk, jarraitu beharreko bidearen eta maitasunaren berri emanez; besteok, deskubritu nahian. Gu, haren ispilu gara. Beraz, egiten duena, guk egiten duguna da. Horregatik harritzen gaitu hainbeste, hain zuzen ere, gizakiak maiz erakusten duen gaizkia egiteko indarrak eta interes berariazkoak eta baita, ongia egitean erakusten duen neurri gabeko eskuzabaltasunak ere.

GU TA GUTARAK
bertso berriak eta lagun zaharrak

DATOZEN EMANALDIAK
A Z A R O A

29 BILBO, Kafe Antzokus, 22:00
30 ELGOIBAR, Antzokia, 22:15

A B E N D U A

1 IGORRE, Kultur Etxea, 21:00
2 ZALLA, Zine Antzokia, 19:00
12 ARRASATE, Unibertsitatea, 21:00
13 GASTEIZ, People aretoa, 22:00
14 SARA, Lur Berri, 21:00
15 LIZARRA, Musika Eskola, 19:00
21 TOLOSA, Bonberenea, 23:00
22 ZARAUTZ, Gaztetxea, 22:30
23 ONDARROA, Kafe Antzokia, 20:00

Lanku
Kontakizketa: 943.290.755
www.lanku.com

KDa salgai